

Resurreccion Maria de Azkue musikaria



Angel **U**garteburu*
Mertxe **G**arcía **P**érez**

Kontzertu honekin, Azkueren lan musikala hobetotxuago esagutzea nahi izan dugu, aski ezaguna dan bere akademiko eta filologo arloa alde batera itxita . Azkuek hizkuntza musikalki autoktonoa sortu eban, nazionala ere deitu dabe batzuek, espainiar musikan eragiten eben italianismoaren eta populismoaren aurkakoa. Gainera, Jesus Guridi bezalako konpositore gazteengan eragina izan eban, honi ateak zabalduz, berak berpiztutako herriko melodiak hartuz, bide bera jarraitzeko.

Giltza-Hitzak: Azkue. Musika Nazionala. Vizcaytik-Bizkaira. Musika autoktonoa.

Con este concierto, hemos pretendido dar ha conocer un poco mejor la faceta musical de Azkue, descuidada frente a otras como la de filólogo o académico. Desarrolló en el ámbito ideológico un lenguaje musical autóctono, también denominado nacional, oponiéndose al populismo y al italianismo presente en la música española. Además, abrió una puerta y animó a los compositores más jóvenes, como Jesús Guridi, a que compusieran utilizando melodías populares vascas, que él mismo recuperó.

Palabras Clave: Azkue. Música Nacional. Vizcaytik-Bizkaira. Cancionero Popular.

Avec ce concert nous avons essayé de faire connaître un peu mieux la facette musicale d'Azkue, négligée face à d'autres comme celle de philologue ou d'académicien. Il a développé, dans le domaine idéologique, un langage musical autochtone, également appelé national, en s'opposant au populisme et à l'italianisme présent dans la musique espagnole. De plus, il a ouvert une porte et a encouragé les compositeurs plus jeunes, comme Jesús Guridi, à composer en utilisant des mélodies populaires basques, qu'il avait lui-même récupérées.

Mots clés: Azkue. Musique Nationale. Vizcaytik-Bizkaira. Chansonnier Populaire.

* Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41. 01005 Gasteiz.

** Eusko Ikaskuntza. M^º Díaz de Haro, 11 - 1^º. 48013 Bilbo.

KONTZERTUA AURKEZTEKO GIDA

Kontzertu honegaz, Resurrección M^a de Azkue musikari modura, hobeto-txuago ezagutu arazi nahi deusuet, aski ezaguna dan bere akademiko eta filologo arloa alde batera itxita.

Bere jario musikala aztertzen dogunean hiru etapa edo aldi ezberdin aurkitu leikez:

Lehena.- Bere lehenengo “eleiz konpoziziotik”, 1884tik, 1899ra gazte aroko lehen sorpenetara.

Bigarrena eta hirugarrena.- Biak heldutasun artistikoaren barruan kokatu leikez, baina Parisen, Bruselan eta Kolonian eukitako ikasketak nabarmen ezberdintzen dabez etapa biak. Bigarrena 1900tik 1906ra doa, eta hirugarrena 1907tik hil zan arte 1952an. Kontzertuaren zehar azalduko dogu hobeto zergaitik egin dogun kronologia aldetik banaketa hain ekitatiboa.

Entzungo dogun lehen obra Jesús Guridik eginda dago, eta Madrilgo Orkestra Sinfonikoak jo eban lehen aldiz 1941garreneko Abenduaren 21an. Resurrección M^a de Azkueren “Cancionero Popular-herri soinueta” oinarrituta dagozan hiru melodia entzungo doguz.

El Cancionero Popular, Herri kanta folkloriko garrantzitsuena da eta beronek erakusten deusku Euskadik musika mailan euki daben oparotasuna. Belaunaldiz belaunaldi ahoz-aho pasatu diran kanta eta ohituren batze lan ikaragarria da hau.

Azkuek 1912 garren urtean Diputazioek antolatutako txapelketa baten aurkeztu eban. Txapelketa hau euskal kanta herrikoien koleziorik onenak erakusteko egin zan eta 1915.eko martxoaren 20an argitaratu eben saritua. Azkue izan zan. 5.000 pezetatoko lehen saria eskuratu eban “Vox Populi” lanagaz. Diru horretatik parte bat derrigorrez lana argitaratzen erabili beharra egoan.

2. KALE MUSIKA EDO MUSIKA PROFANOA

Hemeretzigarren mendeko azken hamarkadan eta hogeigarren mendeko lehenengoan sortu ebazan bere kantu profanoak, “Urlo” operak porrota euki arte sorpenean jarraitu eban, baina porrota dala ta musika bigarren planu batera baztertu eta ezagunak doguzan beste alor batzuk jorratzen hasi zan.

Garaian ospe eta entzute gehien euken generoak jorratu ebazan. Bost zarzuela sortu ebazan, bat euskera eta gaztelera erabiliz *Pasa de Chimbos* eta beste laurak euskera hutsean: *Vizkaytik Bizkaira*, *Eguzkia Nora*, *Aitaren Bildur* eta *Sasi-Eskola*.

Bere paper artean *Txistu* izenagaz ia amaitutako zarzuela bat ere agertu da.

Opera bi ere sortu ebazan, *Ortzuri* eta *Urlo*, garaiko estetikan oinarrituz; folklorea gai bezela hartuta eta Wagnerren konpoziziotan oinarrituta. Bere lanen artean Olerki Sinfoniko bat aurkitzen dogu: *Lamindano*. Lehenengo Sinfonia izena ipini eutson lan honeri baina lagun batek izena aldarazi eutson, garaiko musika sinfonikoaren haizeak jarraitzekotan.

Musika profanoagaz amaitzeko kantatzeko eta pianoan jotzeko romantizismoz betetako pieza laburtxoak ere sortu ebazan.

Lehenera jota, aurretik aipatutako euskeraz idatzitako lau zarzuelak berak sortutako ikastetxeko ikasleentzat pentsatuta egin ebazan. Lanok eginkizun pedagogikoa eben; euskeraz sentimenduak erakusten eta komunikatzen ikastea.

Berak esandako hitzetan: “zarzuela honek musika ikasketarik barik, harmonia jakin barik sortu dodaz, lagun batzuek erakutsitakoan oinarrituta”¹-. Lagun honeen artean Bilboko Musikaeskolako zuzendari zan José Sainz Basabe –bere lehen maisua- egoan, baita Charles Bordes e.a...

Gero, 1900garren urtean, bere hiztegia aurkezteko Tours-en egoala eta, musika ikasketa batzuk egiten ditu Parisen Vincent d’Indy maisuarekin. Bertan Jose Maria Usandizaga eta Jesus Guridigaz bat egiten dau. Gero Alemanian beteko ditu bere ikasketa musikalak, armonia, kontrapunto eta orkestrazioa Strasserserf maisuarekin.

2.1. Vizcaytik-Bizkaira

Euskal zarzuela hau hiru aktotan banatzen da. Letra eta musika, biak Azkuerenak dira eta 1894an sortuta dago. 1895garren otsailaren 2an aurkeztu zan lehen aldiz Bilboko Langileen Patronatoan. Titulu esanahitsu honek zarzuela barruan sartzen gaitu. Vizcaya zahar batetik, euskal izaerez, ohiturez eta balorez beteta, Bizkaia berri batera erooten gaitu, bere ustetan, euskararen aurkako elementuak dabezana, euskal arraza eta morala galtzera eta ahaztera erooten gaituena.

Bere aita zan Eusebio Maria Dolores Azkuek idatzitako Anchinarik ona! da zarzuela honen gaiaren jatorria. Honetan Bizkaiko ohituren aldaketen kritika zorrotza egiten dau.

Zarzuela obertura bategaz hasten da, sarrera instrumentala da hau gero ahoz kantatzen hasteko normalean. Bost instrumentotzat eginda dagoen arren pianoa mantendu dogu bakarrik. Ondoren, hiru aktoak hamabi zenbakigaz, lau zenbaki akto bakoitzean, danak elkarren artean oso ezberdinak bai neurkeran, bai estrukturan eta baita mamian.

1. AKESOLO, Lino de, *Azkueren bi notak autobiográfikoak*, BSRAP, XXI Urtea, 1. koaderno, 37-50 or., 1965. Donostian.

Lehen aldiz jotzera, Bilboko Orfeoiko musikari ugari eta ospe handiko beste hainbat musikari izan ziran: Lope eta Cleto de Alaña, Luis Etxebarri, Lezama-Leguizamon bibolin lhenetan; Modesto Arana, Marco eta Luis Garay bigarren bibolinetan; Juan Carlos Kortázar, kritikoa eta Azkueren lagun haundia biola jo eban; txeloak Viar eta Manuel Zuaznabar, eta azkenik Javier Arisketa piano jolea, eta denak Aureliano Valle zuzenduta.

Eta saioa eginda gero “Euskaldun Batzokira” gonbidatu ebezan, Ez musika lanbikaina zalako bakarrik, edo ta musikariak ondo jo ebelako, EUSKAL TEATRO NAZIONALA sortu zalako, gai abertzaleagaz eta propaganda egiteko eran edo forman.

Zarzuela honen garrantzia nabarmena izan zan, euskal musika eta euskal antzerki lirikoa berpiztu ebalako. Prentsan ere izan eban erantzuna, aurkezpenaren osteko egunetan txutxumutxuak ugari izan ziran, ez eben alde musikalaren kritikarik egin, eta gai sozio-politikoari emon eutsen garrantzia. Bilboko gizarte maila batentzat, identidadearen berpizte bat suposatzen eban, baina beste sektore batzuentzat maisuen kolektiboaren kontrako eraso zan.

Segidan, 1895 garren urtean zarzuela honen liburutxo bat argitaratu zan, José Astuy Editorialean; eta harrakasta ikusita Casa Dotesio argitaletxeak partitura argitaratuko dau. Aldi berean Sabino Aranak diru batzea hasten dau luxuzko argitaratze bat egiteko eta Arriaga Antzerkian antzezteko.

Baina zoritxarrez, Azkuek hizkuntza eta herri musika ezinhobeto lotu arren, eta bilboko kultura ambienteak ezinhobeto onartu arren, guk dakigunez behintzat Vizcaytik Bizkaira zarzuela ez da berriz antzeztu.

R. M^a de Azkue

VIZCAYTIK-BIZKAIRA

→ Obertura ←

GUION-PARTITURA
si b.

ALL. VIVACE.

Clar. Sax. Ff/3. Cor.
pp
cres.

Tromp. Tromb.
pp
cres.

Bajos Bombardinos.
pp

Flauta Oboe.
ceci
do

Flautín.
ff
Tutti

ceci
do
ff
Tutti

2
di - mi - nu - en - do
loce

di - mi - nu - en - do
p

Animato y cres.
Flautín 1^{ta}
p
f
ff
di - mi - do

p animato y cres.
f
ff
di - mi - do

Tranquilo
nu. en. do.
nu. en. do.
Tronp. Sax. Cor. 2^a
p

3. ELEIZ MUSIKA

Azkuek Pio hamargarrenak ezarritako arauak jarraituz “Motu Propio” espi-rituarekin sortu ebazan bere eleiz konposizioak. Kantu gregorianoan eta poli-fonia klasikoan oinarritu zan. Aintzinako eleiz kantuak hartu, ikasi, aztertu eta konposaketarako erabili ebazan.

Bere lanetan otoitza eta kantua alkartu nahi ditu, hizkera erraza erabiliz, eta hitz bakoitza eta konposizioko esaldi bakoitza musikaz lagunduz, bultzatuz, erritmo musikala erabiliz (igoera, luzapena sakontasuna eta geldidueak), eta abestutako plegariaren eginkizuna otoitza dala gogoratuz, estimulo beze-la erabiliz, Jauna goratzeko bidea, bihotz zirrara eragiteko bidea.

Zoritxarrez Azkueren eleiz kantu gehienak argitaratu barik dagoz.

Meditazioa: Organoarentzat preludiorik barik.

1908garreneko martxoan Kolonian sortua. Wagnerren eragina nabarmena da, *Der ritter* eta Andante religioso erabiltzen dau bibolin eta organuarentzat.

Organista: Aitor Olea

Ave María. 1907-1909 urteen artean sortua Kolonian. Francisco de Abaituari eskeinita. Tenore eta pianorako idatzita.

Angel Ugarteburuk egokituta egun honetarako

Organista: Aitor Olea

Trompeta: Angel Ugarteburu.

Ave Maria

R. M. Azkue.

Andante
(dedicada a Francisco de Abaíña)

Trompeta en Do

Organo

8

16

22

27

33

Adaptacion de Angel Ugarteburu 2001

2

The image shows a musical score for Tpt and Org. The score is divided into four systems, each starting with a measure number: 38, 44, 50, and 55. The Tpt part is written in a single staff, and the Org. part is written in two staves (treble and bass clef). The key signature is one sharp (F#). The score includes dynamic markings such as *f*, *ff*, *p*, and *dolce*. The Org. part features a consistent eighth-note accompaniment in the bass clef. The Tpt part has various melodic lines, including some with grace notes and slurs. The score ends with a double bar line at measure 55.

38

Tpt

Org.

44

Tpt

Org.

50

Tpt

Org.

55

Tpt

Org.

adaptación de Angel Ugarteburu 2001

Lekeitioko Santa María Basilikako Korua

Organo: Aitor Olea

Lekeitioko Andra Mariari. 1931garren urtean agertzen da argitaratuta, ahotz batentzat eta organoarentzat. Azkuek armonizatutako Lekeitioko herri melodia bat da.

Lekeitioko Andra Mariari

Andante mosso

♩ = 96

(batzuk)

R. M^o Azkue.

legato Le - a - ko u - ri hon en ertz - e - an a - ger - tu -

The first system of the musical score features a vocal line and a piano accompaniment. The vocal line begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/4 time signature. The tempo is marked 'Andante mosso' with a quarter note equal to 96 beats per minute. The first measure is marked '(batzuk)'. The lyrics 'legato Le - a - ko u - ri hon en ertz - e - an a - ger - tu -' are written below the vocal line. The piano accompaniment consists of a right-hand part with a treble clef and a left-hand part with a bass clef, both in 3/4 time. The right hand plays a melody with eighth and quarter notes, while the left hand provides a harmonic accompaniment with chords and moving lines.

6 (beste batzuk)

ri - koi - ru - di - a E - lo - rri zu - ri - a - dar ar - te -

The second system starts at measure 6, marked '(beste batzuk)'. The vocal line continues with the lyrics 'ri - koi - ru - di - a E - lo - rri zu - ri - a - dar ar - te -'. The piano accompaniment continues with a similar rhythmic and harmonic pattern, maintaining the 3/4 time signature and one-flat key signature.

12 V

an zcu - re - a do - gu, Ma - ri - a Ze - ta - ra za -

The third system begins at measure 12, marked with a 'V' (ritardando). The vocal line has the lyrics 'an zcu - re - a do - gu, Ma - ri - a Ze - ta - ra za -'. The piano accompaniment continues, with the right hand playing a melody that includes some grace notes and a final cadence-like figure.

17

toz horr - en - txe - ra - tsu en - e - gan - a? Ze - ta - ra Zu, e - der ho -

The fourth system starts at measure 17. The vocal line concludes with the lyrics 'toz horr - en - txe - ra - tsu en - e - gan - a? Ze - ta - ra Zu, e - der ho -'. The piano accompaniment provides a final accompaniment for the vocal line, ending with a cadence.

2

22 (bigarrenak) (guztiak)

ri - - Di - ño-dan-e - anzuk da - ran-tzu - zu,ai! laz-tan - a

28

1. bi - otz-on bi - la na - tor ni -

1. *rit*

33 **Meno mosso** solo

Meno mosso Zu - re ma - gal a - Le - kpi -

39

ti - arr ok a - ba ro - be - ti - iz - an do - gu Guk e - gin

45

al - a uis ta gai - tz - orr - ok gu - gan - dik e - tzauz urr - un - du

51

i - zan ba ki - gu a - tse - gin - gar - i

58 *dolce*

Ma - ri - a - ma - ren bi - otz - az gar - tu da - kiki - gun

65

go - go otz - a e - zik be - ti - gu es - tu - ta - lar - i

72

iz - an be - ar - ko lor - ats - ak zo - ri ba - ga - ko u - me zur -

76 **D.C. al coro** **Final del Coro**

tza - ak.

AZKEN HITZAK

Hasieran esan bezala, kontzertu hau bitarteko Azkueren lan musikala hobetotxuago esagutu dogu.

Beroren sortze lanak ikertuta, lan musikalak ikusita eta gutunak irakurri-ta bere garaiko gizona zala ikusi dogu, bere momentuko korrante estetikoak jarraitu eta sentitu dituena. Gaurko saioarekin bera ikertzeko ikuspegi barriak ere zabaldu nahi izan doguz, bere lan ugariaren existentzia erakutsi nahi izan dogu, nahiz eta zoritxarrez gehienak ahaztuta jarraitzen daberen.

Lehenik. Azkuek hizkuntza musikal autoktonoa sortu eban, nazionala ere deitu dabe batzuek, espainiar musikan eragiten eben italianismoaren eta populismoaren aurkakoa. Wagnerianismoa defendatu eban, dakarren estetika guztiarekin, batez ere leit-motiva eta Drama Musikala.

Gainera Jesus Guridi bezalako konpositore gazteengan eragina izan eban, honi ateak zabalduz, bide bera jarraitzeko. Herriko melodiak hartuz lan musikalak sortuz, nortasun musikal propioa sortuz.

Beste konpositore edo musika sortzaile batzuk, bardin euskaldunak zein espainarrak italiako estetikak jarraitzen ebazan. Azkuek honeetatik ihez egin eban euskal "herri" musikaren mamia edanez baina erritmo, melodia eta tonuen imitazio errezetik aldeniduz.

Azkueri buruz balorazio ugari egin dira iturriak sakon ezagutu barik, bere produkzioaren ehuneko bosta besterik ez da heldu guregana, eta berau ere egoera kaxkar xamarrean.

Bigarrenik, Azkuek toki nabarmena dauka hemeretzigarren mendeko azken hamarkadan eta hogeigarren mendeko lehen bi hamarkadetan, herri kantuen azterketan eta berpizketan su ta gar aritu izan zalako, baita musika kultoaren berpiztean, musika infrastrukturen hobeketan eta musikoa artista bezala ikusteko eritsi aldaketan.

Kreazio ikuspegitik, Ez dago europako garaiko tendentzietatik urrun, ezta gutxiago ere, batez ere Wagnerianismoa eta nazionalismoa bereganatzen ditu. Bere Vizcaitik Bizkaira lanarekin Azkuek zarzuelaren tradizioa errekupe-ratu nahi eban, baina orientazio nazionalista nabarmenarekin, euskera eta usadiozko gaiak erabiliz ardatz bezela. Beti, ahal zan neurrian, batzutan ederto bestetan ez horrenbeste, konposaketarako elementu berriak hartzeko prest egoan, bere kodigo musikal propioa sortzeko asmotan.

Melodista ona izan zan, armoniak gehienak presaka eginaren ondorioz lanak eskastu zituen arren. Bere hizkuntza musikala ez da atzerakoia, berri-kuntzak egokitzen eta onartzen ditu. Mezenazgoa desagertua egoan garari haretako musikoaren egoera ikusita, empresari bezala antzezleku bat mantentzen dau bere lanak eta beste artista batzuenak esagutarazteko.

Musika tradizionalaren arloan, ez eban bakarrik batze lana egin, ikerketa lan sakona egin eban, ikasi eta aztertu egin ebazan musika tradizionalaren elementu bakoitza, nahiz eta honek borrokak eta hasarreak eragin. Haserre-ak sortu ebezan gaietariko batzuk hauexek dira; euskal musika tradizionalaren existentzia(bai ala ez), zortziokoaren erritmoa e.a. Beste ikerlari batzuekin izandako liskarrak mesedegarri suertatu ziran; euskal folklorea sakonago eta garai hartarako metodo berriak ziranekin ikertzea ekarri eban.

Azkenik, ahalik eta balorazio zintzoena egiteko asmoagaz, esan beharra dago Azkue jakituri handiko intelektual eta konpositore izan zala, eragin handikoa bere garaian eta euskal gizartean. Bere lanean estetika ezberdinetako aukerak batu ebazalarik.

“Urloren” autorea musika infrastrukturak bultzatzen dituen ekintza garrantzizuenen suspertzaile da. Instituzio batzutan ere bere eragina dau eta Euskal Herriko proiektu eta ekintza musikal garrantzizuenetan parte hartzen dau.

Amaitzeko ezin geinke ahaztu Azkue eta bere garaiko konpositoreak, mesprezatuak izan direla, korronte estetiko ezberdin biren artean harrapatuta geratu direlako, korronte hauetariko batzuk oso berritzaileak. Baina Azkueri esker nazionalistak ate nagusitik sartu ziran, folklorea oinarritu ziralako arte musikala berpiztuz eta musikoaren egoera hobetuz.

Historiak aldiz, ia lepoa emon deutso bere lan musikari, garaian kritikoei nahiago ebezan hainbeste ugaritu ziran musiko nazionalistak, andaluzistak.

Azkuek sortze lan asko izan arren genero ugari ikutu ebazan, folklorista ospetsu izan zan eta hainbat musikologok miresten eben, Felipe Pedreil, higinio Angles, Aita Otañok. Hil ostean ahaztuta egon da.